BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1553

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 17koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, baimena ematen diona Asociación A.I. Empresarial de Instalaciones de fontanería, saneamiento, gas, calefacción, mantenimiento, climatización y afines de Álava (AFOGASCA) entitateari, profesional baimenduak prestatzeko, erakunde aintzatetsi gisa duen baimena zabaldu eta espezialitate berrietan jarduteko.

Esp. zk./ Gaia: SEG/0019/2014

AURREKARIAK

1.– Industria eta Energiako sailburuordearen 2013ko urtarrilaren 24ko Ebazpenez, Asociación A.I. Empresarial de Instalaciones de fontanería, saneamiento, gas, calefacción, mantenimiento, climatización y afines de Álava delakoa –aurrerantzean, AFOGASCA–, ondoren zehazten diren espezialitate hauetan profesional baimenduak prestatzeko erakunde aintzatetsi gisa aitortu zen:

– Barruko ur-instalazioak:	IA
– Gas instalazioak:	IGA
	IGB
	IGC
– Instalazio termikoak eraikinetan:	IMT
– Petrolio ekoizkin likidoak:	ICL 1
	ICL 2

2.– AFOGASCA entitatearen ordezkaritzak, 2014ko otsailaren 20an aurkeztu zuen profesionalak prestatzeko erakunde aintzatetsi gisa daukan baimena zabaltzeko eskabidea, ondorengo espezialitateetan norbanakoaren kualifikazio agiria lortzera zuzenduta dauden trebakuntza ikastaroetan:

– Edozein fluordun gas karga daukaten hozkailu ekipoen maneiatzailea (GF1).

– 3 kg baino gutxiagoko fluordun gas karga daukaten hozkailu ekipoen maneiatzailea (GF2).

– Salgai hoztuen garraiorako 3 kg baino gutxiagoko fluordun gas karga daukaten hozkailu ekipoen maneiatzailea (GF2e).

– Fluordun gas karga daukaten ibilgailuen girotze ekipoen maneiatzailea (GF3).

– Fluordun gasak itzaltzaile bezala erabiltzen dituzten suteen aurkako babes sistemen maneiatzailea (GF4).

– Fluordun gasak dauzkaten disolbatzaileen eta horiek erabiltzen dituzten ekipoen maneiatzailea (GF5).

3.– Eskabide horrekin batera, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak, industria-segurtasunaren alorrean, norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituenak, bere V. kapituluan aurreikusitako eskakizun eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak atxiki zaizkio espedienteari, eta bereziki:

– Gasteizko Madril kalean, 66 zenbakian, solairuartean, P.K.: 01002, egoitza duen entitatearen identifikazio-datuak.

– Prestakuntza-jarduerak gauzatzeko entitateak dituen giza baliabideen deskribapena.

– Garatuko diren ikastaroei buruzko zehaztapenak, gaiak, metodologia, antolakuntza eta ebaluazio-sistemak xehetasunez azalduta daude. Honi esker, ikastaroak 795/2010 Errege Dekretuan, ekainaren 16koan, fluordun gasen eta beraietan oinarriturik dauden ekipoen merkaturatze eta maneiatzea, halaber erabiltzen dituzten profesionalen ziurtagiriak arautzen dituenak, bere II. eranskinean ezartzen dutenarekin bat datozela ikusi daiteke.

– Zati praktikoa emateko erakundeak dauzkan baliabideen ezaugarrien azalpena.

4.– Lurralde Ordezkaritzako Industria eta Energia Administrazioko teknikariek, erakundera egindako agerraldien ondoren, bai instalazioak bai ekipamenduak legez dagozkien eskaerak betetzen dituztela dioen txostena luzatu dute.

5.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Arabako Lurralde Ordezkaritzako buruak, 2014ko martxoaren 5ean, AFOGASCA entitateak aurkeztutako eskabideari hain zuzen ere, erakunde aintzatetsi baimena zabaltzearen aldeko txostena luzatu zuen.

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea.

2.– Eskatzaileak aurkeztutako agiriei jarraikiz, AFOGASCA entitateak baditu industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan gutxienekoz eskatzen diren instalazioak; hauek Arabako Lurralde Historikoan daude.

3.– Halaber, baimena zabaltzea eskatu den espezialitateei dagokionean, garatu beharreko ikastaroei buruzko nahiko azalpen aurkeztu da, eta gai-zerrendak, metodologia, antolakuntza eta ebaluatzeko aurreikusitako sistemak zehaztu dira.

4.– Justifikatu egin dira, halaber, baimena zabaltzea eskatzen den espezialitate ezberdinetan ikastaroak emateko erakundeak dituen giza baliabideak.

5.– Labur esanda, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretu horretan ezarritakori jarraituz izapidetu da prozedura, eta erakunde eskatzaileak, bere aldetik, dekretu horren 25. artikuluan jasotako egiaztagiri nahikoa aurkeztu du.

Aipatutako lege-manuak eta oro har eta gai honetan aplikatzekoak diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Industria eta Energiaren sailburuordearen 2013ko urtarrilaren 24ko Ebazpenez, Asociación A.I. Empresarial de Instalaciones de fontanería, saneamiento, gas, calefacción, mantenimiento, climatización y afines de Álava, (AFOGASCA) entitateari eman zitzaion baimena zabaltzea, zein, gaurtik aurrera, ondoren zehazten diren espezialitateetan ere erakunde aintzatetsia izango baita:

– Edozein fluordun gas karga daukaten hozkailu ekipoen maneiatzailea (GF1).

– 3 kg baino gutxiagoko fluordun gas karga daukaten hozkailu ekipoen maneiatzailea (GF2).

– Salgai hoztuen garraiorako 3 kg baino gutxiagoko fluordun gas karga daukaten hozkailu ekipoen maneiatzailea (GF2e).

– Fluordun gas karga daukaten ibilgailuen girotze ekipoen maneiatzailea (GF3).

– Fluordun gasak itzaltzaile bezala erabiltzen dituzten suteen aurkako babes sistemen maneiatzailea (GF4).

– Fluordun gasak dauzkaten disolbatzaileen eta horiek erabiltzen dituzten ekipoen maneiatzailea (GF5).

2.– AFOGASCA entitateak baimena du ikastaroak emateko ikuskatuak izan diren Arabako Lurralde Historikoko instalazioetan. Erakundeak beste instalazio batzuetan eman nahi baditu, nahitaezko baimena eskatu beharko du eskumena duen lurralde-bulegoan, eta egiaztatu egin beharko du instalazio horiek maiatzaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituztela.

3.– Aitortutako entitate orok bete beharko ditu lege eta erregelamenduzko xedapenek ezartzen dituzten eginbeharrak, bereziki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluan aurreikusitakoak; ez-betetzearen ondorio erakunde aintzatetsi kalifikazioaren galera izango da.

4.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industriako sailburuordeari, jakinarazten denetik hilabeteko epearen. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 17a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.